

# Nazio Batuen 2030 Agendako Garapen Iraunkorrerako 17+1 Helburu

## Erakusketa eta Solasaldia

Ondiztorre, Leioa  
2018ko azaroaren 5etik 16ra

### GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK



Ekitaldiaren helburua da Nazio Batuen 2030 Agendako 17 Garapen Iraunkorrerako Helburuak eta bat gehiago (Hizkuntza eta Kultura Aniztasunaren bermea) ezagutzera ematea Leioako herriari eta bereziki ikasleei.

Zeintzuk dira munduak dituen arazo larrienak?

Zer da garapen iraunkorra?

Zer dira GIHak? Nola sortu ziren?

Noren ardura da helburuak betetzea?

Zergatik da garrantzitsua hizkuntza eta kultura aniztasunaren bermea garapen iraunkorrerako?

**Zergatik hartu behar ditugu kontuan GIHak? Ze ekarpen egin dezakegu?**  
Historian lehen aldiz munduaren arazo nagusiei aurre egitea planteatu da modu global batean. Halere hizkuntza eta kultur aniztasunaren galera ez da kontuan hartu. Pobrezia, gosea, hizkuntza eta kulturen galera, klima aldaketa, eta munduak aurrean dituen beste arazo guztiak elkarrekin lotuta daude eta erantzukizuna denona da. Bakoitzak bere neurrian egin dezake zerbeit.

**Hizkuntza eta kultur aniztasunaren bermea, GIH bat gehiago. Zergatik?**  
Munduko eta Euskal Herriko garapen iraunkorrerako ezinbesteko baldintza delako bertako, eta bereziki gutxiagotak diren hizkuntzak aintzat hartzea.

- Erkide eta norbanakoen identitateak indartu eta aberasteko
- Giza bazterkeria eta berak dakarren pobrezia saihesteko,
- Kalitatezko eta inklusiboak diren hezkuntza eredu elebi-eleanitzak bermatzeko,
- Belaunaldiz belaunaldi, bertako hizkuntzaren bitartez eraikitako ezagutzak, bai naturarenak bai giza harremanetarakoak galdu ez daitezen.

### Erakusketa: 17+1 GIHak iruditan

Garapen iraunkorrerako helburuak zeintzuk diren erakusteko 17 + 1 ilustrazio aurkeztuko dira, bakoitza helburu batekin lotuta. Lehenengo 17 ilustrazioak UNESCO Etxeak lortu ditu berariaz egindako lehiaketa baten bidez. 18.a Easo Politeknikoak BHI Usandizagako ikasleen arteko lehiaketa batean aukeratu zen.

Saio interaktiboak astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 12:00etara ikasleentzat eta 18:00etatik 20:00etara publiko orokorarentzat.

### Informazio gehiago:

- <https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/objetivos-de-desarrollo-sostenible/>
- <https://www.youtube.com/watch?v=IT9rJkK6WiU&list=PLVpRlgPG0eJmXSEnHuS-2J92WVlzBNdxDV&index=2>
- <https://www.ehu.es/es/web/mho-unesco-katedra>



Munduko Hizkuntza Ondarearen  
UNESCO Katedra  
Cátedra UNESCO  
de Patrimonio Lingüístico Mundial  
UNESCO Chair  
on World Language Heritage



Leioa  
UDALA-AYUNTAMIENTO

easo  
Politeknikoa Politécnico

ELUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO  
KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

